

Hizkuntza gutxiagotuak globalizazioaren aurrean

Lasarte-Orian, 2002ko irailan

Pablo Suberbiola Unanue

Aurkibidea

1	<u>Sarrera:</u>	3
2	<u>Globalizazioa: prozesuaren eta kontzeptuaren definizioa</u>	5
2.1	<u>Globalizazio prozesuaz</u>	
2.2	<u>Mundu osoaren “mundializazioa” baino, mendebaldeko gizartearena</u>	
3	<u>Globalizazioaren ondorioak</u>	7
3.1	<u>Sarrera</u>	
3.1.1	Ez dago adostasunik, aldeko eta kalteko iritziak	
3.2	<u>Ondorio ekonomiko, sozial eta politikoak</u>	7
3.2.1	Multinazional handiak munduko nagusi:	
3.2.2	Globalizazioaren biktimak:	
3.2.3	Etorkinen fenomenoak:	
3.2.4	Autonomia politikoen ahultze eta erlatibizatzea:	
3.2.5	Ezagutza, munduko merkantzia nagusi	
3.3	<u>Ondorioak kulturen esanahi eta adierazpenetan</u>	13
3.3.1	Homogeneizazioa eta kultur monopolioen arriskua	
3.3.2	Balore sistemen erlatibizatzea eta esanahi krisiak	
3.4	<u>Hizkuntza eta kultur mailako ondorioak</u>	19
3.4.1	Aldaketak hizkuntza komunitatean eta berauen harreman sareetan	
3.4.2	Harreman sareak aldaketen azterketarako tresna gisa	
3.4.3	Harreman sareen aldaketa eta euskararen erabilera	
3.4.4	Ingelesaren nagusitasuna mundu mailan. Suitzako adibidea	
3.4.5	Euskal kultura globalizazioaren aurrean.	
3.4.6	“time is short”	
4	<u>Egitasmo interesgarriak eta jorratu beharreko bideak</u>	27
4.1	Sareko errekurtsioak garatu, adibidez Atlantis egitasmoa:	
4.2	Hizkuntza gutxituetako hiztunak eleanitz:	
4.3	Itzulpen automatiko sistemak garatu beharra	
4.4	Software librean oinarritutako programak erabiltzea (Linux)	
4.5	Etorkinen integratziorako bideak:	
4.6	Lexiko aldetik sorkuntza bultzatu eta corpus-a malgutzera	
4.7	Hizkuntza politikan errealitate berrian aintzat hartzeko zenbait orientabide, kontzeptu eta ideia	
5	<u>Bibliografia:</u>	38

1 Sarrera:

Globalizazioa gai handia da, zabala, bihurria.

Azken bi-hiru urteetan denon ahotan dabilen kontua da nahiz eta gero oso zaila egiten zaigun bi hitzetan definitzea.

Kontua da behintzat azken urteotan aldaketa teknologiko, ekonomiko, sozial eta kultural ugari ezagutu dugula. Aldaketa hauen dimentsioa, eragina eta abiadura handitzen eta azkartzen ari da eta **dagoeneko “globalizazio” gisa ezagutzen dugun prozesua edo errealitate berria gure artean dugu.**

Baliabide teknologiko berrien, komunikabideen eraginaren hazkundearen, mundu mailako harreman sareen sorreraren eta beste hainbat aldaketen eraginez mundu mailako antolaketan eta harremanetan aldaketa garrantzitsuak ematen ari dira nahiko modu isilean eta oso abiadura bizian.

Aldaketa prozesu honek eragin nabarmena izan du harreman eta antolaketa ekonomikoan (aldaketen eragile nagusia berau da seguruenik), baina baita maila sozial, politiko eta abarretan ere. Eta, nola ez, aldaketa prozesuak guzti honek bere **eragina du halaber kulturen eta hizkuntzan ere.**

Azken finean, komunitate ezberdinen arteko harreman moduak eta besteei buruz dugun informazioa aldatzen ari dira; kontaktuari dagokionean mundua “txikitzen” ari zaigula dirudi, eta aldi berean eskura dugun informazio iturri eta aukerak nabarmen “handitzen”.

Eta ez informazio mailan soilik. Komunitate, herrialde eta gizarte ezberdinetako pertsonen arteko harremanak ere gero eta ugariagoak dira “mendebaldeko” gizartean, eta aldi berean “mendebaldekotzat” ez ditugun hamaika herrialdetatik milaka lagun datoz “etorkin” modura Europara eta beste zenbait herrialdetara lan eta aukera berri bila.

Aldaketa guzti hauen ondorioz hizkuntza eta kultura gutxituen egoera ere aldatu egingo da ezinbestean. Ari da dagoeneko. Eta hortaz, beharrezkoa zaigu lehenbailehen errealitate berri hauetara egokitzeko moduak bilatzea eta sortzea.

Hasiera batean badirudi gurea bezalako hizkuntza txikien osasunerako **arriskuak handiagoak direla aukerak baino.** Ez dirudi mundu mailako “botere” handiek eragin eta gidaturiko prozesu “oroberdintzaile” batek gurea bezalako izaera “berezitu” txikiei mesede handirik lekarkiekeenik.

SAKONTZE EGITASMOA

Baina, bestalde, bistan da **bizirik dagoen edozein komunitatek aurre egin behar diela aurrean dituen erronkei**, eta etengabe garai berritarako prestatzen joan behar duela, gerora ere biziko bada. Gainera, mundu mailan gero eta gehiago dira globalizazio fenomenoek “kaltetuta” sentitzen direnak, eta alde horretatik bide interesgarriak sor daitezke datozen urteetan han eta hemen joera globalizatzaileari alternatibak jartzeko eta mundu mailako testuinguruan herrien izaera eta identitate propioa ezaugarri moderno eta desiragarri bihurtzeko.

Eta hor gaude euskaldunok ere; Errobik garai batean abesten zuenez, “aitarik ez dut, ama hiltzen ari...”, bizi nahi baina sendotu ezin ataka horretan. Garai bateko hitzun trinkoak pixkanaka hiltzen, hitzun belaunaldi berri ugarituei erabilera esparru naturalak eta euskara erraztasunez menperatzeko ahaleginetan, lurralde batzuetan hitzunak ugaritzen, besteetan transmisioari ere eutsi ezinik, administratiboki zatituta eta politikoki beti bezala nahastuta...

Eta tartean, globalizazioa. Sakontze lan honetan gaian sartzeko ahalegin bat egin dut, prozesua kokatuz lehenik, eragiten eta eragingo dituen ondorioak aztertuz ondoren eta aukera berriak zein izan daitezkeen bilduz azkenik. Gai oro hala izaten bada, globalizazioarena areago da “mugarik gabeko” gaia: informazio berria ia egunero sortzen da, eta nahi adina helduleku eskaintzen du gaiak. Ezinbestean “axaleko sakontze” edo murgiltzea izan da beraz, esku artean duzuen lan hau, handiegia baitzen ur handi –eta kasu honetan “global”- horietan galtzeko arriskua.

2 Globalizazioa: prozesuaren eta kontzeptuaren definizioa

2.1 Globalizazio prozesuaz

Hizkuntza gutxituak globalizazioaren aurrean. Mundua globalizazioaren aurrean. Badirudi mundu guztian duela edo izango duela eragina, eta aldiberean ezin dugu zehatz adierazi non hasten den eta non bukatzen den aipatu fenomenoak.

Hainbat definizio topa genitzake prozesu hau adierazteko, baina lan honen helburua prozesuaren nondik norakoak baino, hizkuntza gutxiagotuengan izango duen eragina aztertzea izanik, nahikoa izango dugu kokatzearekin.

Prozesuaren **oinarrian azken urteotan bizitu ditugun aldaketa teknologikoak eta ekonomikoak daude**. Munduko bazter batetik bestera informazioa segundu batean bidaltzeko aukera teknologikoak ikaragarri ugaltu dira, eta honek aldaketa nabarmenak eragin ditu pertsonen arteko harremanetan eta informazio zein ezagutzaren zabaltzeko abiadura, hedapenean eta moduetan. Bestalde, enpresen jardura esparrua ere izugarri hedatu da: enpresek dirua eta boterea eskuratu ahala estatuen mugak gainditu dituzte, beren jardura mundu osora zabaltuz eta etekin ekonomikoaren mesedetan mundu osoko baliabideak hustiatuz eta tartean topatzen dituzten traba eta ezberdintasunen gainetik mugituz.

Aldaketa guzti hauek batzuk besteekin lotuta daude, mundu mailako harreman eta komunikazio sareak ugaritzeak eta zabaltzeak prozesua bera oraindik gehiago azkartzea dakar, bultzatzaile nagusien artean beti enpresen saltzeko eta azkarrago lan egiteko interesa egonik. Horrela, gorpil zoro moduko bat ezagutu dugu azken urteotan, gero eta informazio, produktu eta zerbitzu gehiago denbora gutxiagon eta jende gehiagoren eskura jartzea dakarrena, nolabait munduko distantziak laburrago egiten ari dena eta botere mediatiko eta ekonomikoa gero eta esku gutxiagotan egotea eragiten duena.

2.2 Mundu osoaren “mundializazioa” baino, mendebaldeko gizartearena

Azkenaldian gero eta gehiago “mundializazio” eta “globalizazio” hitzak erabiltzen duitgun arren, garrantzitsua da ohartzea prozesu guzti hau eredu ekonomiko jakin bati lotuki garatzen ari dela nagusiki, “mendebaldeko gizarte” bezala ezagutzen dugun horretan, hain zuzen.

SAKONTZE EGITASMOA

Egia da maila teknologikoan komunikazio eta informazio aukerak abiada bizian ugaritzen ari direla. Baina nortzuk dugu aukera berri horien “erabiltzaile baimena”? Gizarte kapitalistetako biztanle garenok, eta nagusiki kontsumitzaile garen neurrian.

Mundua distantziatan nolabait “txikitzen” ari den arren, maila globalean Hegoaren eta Iparraren arteko ezberdintzea eta distantzia ikaragarria da eta etengabe hazten ari da: gaur egun **mundu mailako kontsumoaren %80a munduko biztanlegoaren %20ak egiten du**, eta munduko biztanlegoaren erdia baino gehiago aipatzen ditugun komunikazio aukera, berrikuntza teknologiko eta gainerakoetatik aparte bizi da, kasurik gehienetan bizirauteko gero eta arazo larriagoekin. Hau ere globalizazio prozesuaren alde bat da, noski. Betiko “beste” aldea.

3 Globalizazioaren ondorioak

3.1 Sarrera

Prozesu guzti honek maila askotako ondorioak ditu. Maila ekonomikoan, politikoan, kulturalean... maila guztietan.

Informazio mailan gure ikuspegia zabaltu eta aberasteko aukera dugu, batetik. Baina kanpoko eraginen aldeberean komunitate bakoitzaren funtzionamenduan eta orekan nabarmen eragin dezakete, batez ere botere ekonomiko eta politiko handirik ez duten komunitateen kasuan.

Ondorengo puntuetan zenbait ondorioren aipamena eta deskribapena egingo dugu, globalizazio prozesuak izango dituen ondorio guztiak zerrendatzea ezinezkoa dela, eta aldeberean, aipatuko ditugun ondorio guztiak eta erabat globalizazioak soilik eragindakoak ez direla jakinik.

3.1.1 Ez dago adostasunik, aldeko eta kalteko iritzia

Globalizazioa ona edo txarra da? Bere ondorioak kalterako edo mesederako izango dira? Galdera irekia eta prozesua hain zabala izanik, bistan da erantzun bakar batek ezin dituela ikuspegi ezberdin guztiak asetu. Denetariko ahotsak entzuten dira, Juaristik (2001) gogorarazten digunez:

Hitzetik hortzera eta ahotik belarrira bolo-bolo dabilen kontzeptua bada ere, ez dago bere emaitza eta eraginei buruzko adostasunik. Batzuentzat globalizazioak ondorio ekonomiko, politiko eta kultural ezkorrak izango ditu. Teknologia berriek sortzen ari diren mugarik gabeko merkatuaren laguntzarekin eta estatuen babes politikak deseginez, multinazionalen etekinak handitu egingo dira, demokratikoki hautatutako erakunde eta politikarien boterea bera ere gaingituz.

3.2 Ondorio ekonomiko, sozial eta politikoak

Globalizazio hitzarekin ezagutzen dugun prozesuaren ondorioak era askotarikoak dira eta gure gizarteetako arlo ezberdin askotara iristen dira. Atal honetan ondorio politiko, ekonomiko eta sozial batzuen aipamena jaso dugu.

3.2.1 Multinazional handiak munduko nagusi:

SAKONTZE EGITASMOA

Enpresa multinazionalen etekinak ugaritu ahala munduan barna hedatzen joatea, boterea metatzea eta mugaz gaindi beren interesak erostea ez da fenomeno berria. Dena den, globalizazio garai honetan prozesu hau nabarmentzen eta areagotzen ari da.

Gero eta gehiago dira mundu mailako bezeriaren ikuspegiarekin lan egiten duten enpresak, “mundu mailako” bezeroen gustuak azterturik zabalpen handiko produktuak diseinatzeko dituztenak, eskulana munduaren mutur batean, lehengaiak bestean eta publizitate kanpaina mendealdeko bulego batetik egiten dutenak. Enpresa hauetariko askok gaur egun hainbat estatu txikik baino botere eta gaitasun ekonomiko gehiago du, eta ondorioz erabaki politiko gero eta gehiago interes ekonomiko hauen arabera hartzen dira, nazio bateko ordezkariak erabaki dutenari muzin eginez eta autonomia politikoaren gainetik jardunaz.

3.2.2 Globalizazioaren biktimak:

Noski, teknologia berrien erabilpena orokortzeak erraztasun eta erosotasun ugari sortzen ditu munduko erabiltzaile askorentzat, baina ez dakartza onurak bakarrik. “Mendealdekoak” ez diren gizarte askotan, teknologien goitik beherako ezartze honek desoreka berriak eragiten ari da eta gizarte horien menpekotasuna areagotzen du. Luis de Sebastian-ek horrela azaltzen digu:

“La introducción los ordenadores, los avances de las tecnologías de la información y últimamente de Internet han sustituido toda una serie de actividades, que antes se hacían manualmente o por seres humanos, por la actividad de las máquinas. Estas innovaciones que ahorran trabajo pueden estar indicadas y contribuir a aumentar el bienestar social de una colectividad en la que el trabajo humano es escaso y resulta demasiado caro. Pero, introducidas estas innovaciones en sociedades en las que el trabajo es abundante y barato, aun el bien calificado, la cosa cambia. Los beneficios que reciben las empresas que las introducen no necesariamente contribuyen a aumentar el bienestar de la sociedad, y lo pueden perjudicar si en el proceso destruyen puestos de trabajo y contribuyen a aumentar la pobreza”.

3.2.3 Etorkinen fenomenoak:

Eta bistakoa da mundu mailako eskala batean mugitzen den ekonomia kapitalista mugarik gabeko batek, kasurik gehienetan indarrez beren jatorrizko baliabide

SAKONTZE EGITASMOA

naturalak kenduta, hainbat eta hainbat komunitate behartzen dituela ohiko lanbide eta antolaketak utzi eta oso diru gutxiren truke mendebaldeko gizarteetarako produktuak sortzeko eskulana eskaintzera, beren menpekotasuna areagotuz

Zentzu honetan, eta gai hau bere horretan konplexua eta zabala den arren, gero eta ugariagoa da “mendebaldeko gizarteetara” zuzenduriko emigrazio fenomenoak, gero eta jende gehiagorentzat ezinezkoa baita bere ohiko ekonomiarekin jarraitzea, eta bizirauteko behartuta daude gure gizarteetan “zirrikitu”ren bat bilatzera.

Eduardo Galeano idazle hegoamerikarrak aurten eskeiniriko hitzaldi batean giza eskubideei buruz ironikoki mintzatuz adierazi bezala:

"Todos tenemos derecho a transitar libremente", afirma el artículo 13. Entrar, es otra cosa. Las puertas de los países ricos se cierran en las narices de los millones de fugitivos que peregrinan del sur al norte, y del este al oeste, huyendo de los cultivos aniquilados, los ríos envenenados, los bosques arrasados, los precios arruinados, los salarios enanizados. Unos cuantos mueren en el intento, pero otros consiguen colarse por debajo de la puerta. Una vez adentro, en el paraíso prometido, ellos son los menos libres y los menos iguales.

UEUko Soziolinguistika sailak 2002. urtean antolaturiko ikastaroan (*Etorkinak eta euskara: hizkuntza integrazio sozilerako bide*) etorkinen fenomenoak Euskal Herrian gaur egun duen errealitatera hurbilpen bat egiteko aukera izan genuen.

Bertan, Agustin Unzurrunzaga, S.O.S Arrazakeria taldeko ordezkariak azaldu zuen nola, emigrazioa ez den berez gaur egungo kontua. Historian zehar beti egon izan da batetik besterako emigrazioa, eta kasu askotan jende kopuru oso handiak mugitu izan dira.

Dena den, globalizazioaren egungo testuinguruan garrantzia berezia hartzen ari den fenomeno delako esango nuke. Informazioa bezala, produktuak eta zerbitzuak mugarik gabe batetik bestera abiadura bizian mugitzen diren honetan, esan daiteke lan eskua bera ere merkantzia bilakatu dela, eta hala, mendebaldeko ekonomien beharren arabera mugitzen dira pertsonak ere, hegotik iparrera nagusiki, beren jatorrizko eremuetan bizi ezinak bultzatuta eta mendebaldeko kapitalismoaren argi distiratsuek erakarrita.

Prozesu honek bere sorterria utzi behar duenarentzat zein jasotzen dituen gizartearentzat identitate, kultur zein hizkuntza mailan sortzen dituen ondorioak

SAKONTZE EGITASMOA

aipatu aurretik, ikus ditzagun orain arte ditugun datuak. Zenbat etorkin dago egun Euskal herrian?

Euskal Autonomi Erkidegoa	21.299
Nafarroa	17.671
Guztira	38.970

Esan bezala, SOS Arrazakeriak emandako datuak dira eta ezinbestean gutxigorabeherakoak, gaur egun etorkinek paperak eta lana lortzeko dituzten zailtasun guztiak ezagututa, ezinezkoa suertatzen baita kopuru zehatzak izatea.

Edonola ere, prozesu honek kopurutan duen dimentsioa kokatzen laguntzen digu: gaur egun etorkinek EAEko biztanlegoaren % 1 inguru dira eta Nafarroan, berriz, % 2 edo 2,5.

3.2.4 Autonomia politikoen ahultze eta erlatibizatzea:

Mundu mailako ekonomiaren indartzeak pertsonak batetik bestera mugiarazteaz gain, beste hainbat ondorio ere eragiten ditu. Azpimarratu nahiko nukeen beste bat autonomia politikoen ahultzearena da.

Gaur egun mundu mailako enpresa handiek hainbesteko boterea eskuratu dute eta hainbeste eragin ahalmen dute, kasu askotan Estatuen erabakiak beren interesen arabera mugitzen direla. Zentzu honetan, mundu mailako ekonomiak daraman bidea ikusirik, badirudi gero eta zailagoa izango dela botere politikoa izanik ere interes ekonomikoekin bat ez datozen erabakiak hartzea. Honek, noski, eragin zuzena izan dezake kultura, hizkuntza edo gizarteko beste edozein gai planifikatu nahi denean.

Zentzu honetan, adibide esanguratsua izan zen orain hiruzpalau urte Katalunian “zinemaren legea”ren inguruan gertaturikoa.

Katalanaren erabilpena irratietan eta zinema aretoetan bultzatzeko helburuarekin, Generalitateak erabaki zituen portzentaia batzuk eta arautegi bat garatu zuen irratsaioetan eta filmeetan portzentaia hori bete zedin.

Zinemari dagokionean, arautegi hori ez zen bete, eta gobernuak ezin izan zuen ezer egin. Generalitateak kultur jarduerak arautzeko eskumenak izan arren, eta eskumen horiek katalanaren erabilpen minimo bat ziurtatzeko erabili nahi izanda,

SAKONTZE EGITASMOA

zer egin gero multinazional handi bat etorri eta, besterik gabe, betetzen ez duenean?

Era honetako milaka adibide gertatuko dira, ziurrenik, munduko bazter guztietan eta gizarteko arlo ezberdinetan. Dena den, hizkuntza minorizatuen normalizazioaren ikuspegitik bereziki kezkagarria da enpresa handiek erabakiak bere kasara hartzeko inpunitatea, azken finean enpresok beti joko baitute biderik errentagarrienaren bila. Eta errentagarriena hizkuntza kontuan beti izaten dira hizkuntzarik hedatuenak eta indartsuenak, eta ez hain justu “gutxituak”.

3.2.5 Ezagutza, munduko merkantzia nagusi

“Informazioaren eta ezagutzaren gizartean” gaudela esaten da gaur egun. Baliabide materialak leku batetik bestera mugitzeko gero eta erraztasun gehiago dagoen honetan, ondasun “ez materialak” –informazioa eta ezagutza bereziki- ari dira aparteko garrantzi bat hartzen mendebaldeko gizartearen funtzionamenduan.

RIDDERSTRALE, Jonas eta NORDSTRÖM, Kjell Estokolmoko ekonomia irakasleek azalpen argigarriak ematen dituzte *Funky Bussines* beren lanean aro berri honetan enpresek izango duten funtzionamenduari eta ekonomia arautuko duten legeei buruz. Besteak beste, nazio kontzeptuaren ahultzea ekonomiaren ikuspegitik eta ezagutza munduko merkatziarik baliotsuena bihurtzea, gero eta muga gutxiagorekin eta munduaren mutur batetik bestera gero eta abiada biziagoan hedatuz:

El declive del concepto de nación está muy unido al hecho de que tanto en sentido comercial como general, impera el deseo de internacionalización. En términos institucionales, atravesamos un periodo con un nivel de globalización desconocido hasta ahora. Por una vez, la propaganda coincide con la realidad. Ya sea a través de la Unión Europea, el Tratado de Libre Comercio o la Cooperación Económica entre Asia y el Pacífico, lo cierto es que cada vez se deja más en manos supranacionales la toma de decisiones importantes.

Multinazionalen asmoek eta ekonomiaren interesek erabateko nagusitasuna dute ezagutzen ari garen eta datorkigun garai berrian. Enpresa handien hedapenak gero eta muga gutxiago topatzen du bere bidean eta gero eta indar gehiago duen balorea da “ekonomiaren onerako den guztiari” eta garabideari mugak ez jartzea. Testuinguru honetan, interes ekonomikoek ikuspegi global batetik lan egiten dute,

SAKONTZE EGITASMOA

ezberdintasun nazionaletaz gaindi beren jarduera zabalduz. Zabalpen honekin, nazioen arteko ezaugarriak eta gauzak egiteko moduak gero eta antzerakoagoak dira neurri batean, edozein gairi buruzko ezagutza alde batetik bestera abiada bizian mugitzen delako.

En la actualidad, el conocimiento se transmite de forma inmediata e internacional.

Eta, esan bezala, ezagutza hau lortzea eta egoki erabiltzea da enpresen lehiaren gakoa:

*De hecho, el único bien de Microsoft es la imaginación humana. Es una empresa basada en el poder de la mente.
.../...*

*Los tres motores, la tecnología, las instituciones y los valores, han creado un mundo internacional basado en el conocimiento. En este nuevo entorno la competición es total y personal.
.../...*

*Estamos continuamente expuestos a sistemas de valores distintos. Las cosas que se daban por sentadas han sido sustituidas por la necesidad de tomar decisiones.
.../...*

No hay respuestas sencillas y universales a cuestiones relacionadas con las posesiones materiales y el conocimiento, sobre lo correcto y lo incorrecto, sobre lo bueno y lo malo. Las preguntas no han cambiado, pero las respuestas están menos claras.

3.3 Ondorioak kulturen esanahi eta adierazpenetan

Ondorio politiko eta ekonomikoez gain, globalizazio prozesuak ondorio kulturalak ere izango ditu, noski.

Honetan ere mehatxuak eta aukera berriak aldiberean ageri dira eskenatoki berrian. Kulturen esanahia, zabalpena eta zentzua bera aldatu egingo da testuinguru honetan.

Industria kultural handien eskutik zabalpen handiko kultur produktuen sorkuntza ugaritzen ari da, tokian tokiko ezaugarriak eta behar kulturalak kontuan izan gabe irizpide ekonomikoak gidaturiko produkzioa bultzatuz eta hauek modu erakargarri batean zabalduz.

3.3.1 Homogeneizazioa eta kultur monopolioen arriskua

Antxon Mendizabalek, Globalizazioari buruzko bere liburuan honela adierazten digu:

(...) (eredu amerikarraz ari da; American way of life)

El avance de este modelo de desarrollo profundiza lo ya expuesto en el análisis de las sociedades fordistas, representando el fin de las diferencias culturales (en base a la aceptación universal de la cultura norteamericana) y la generación de una sociedad de individuos-consumidores-productores, intercambiables, que vivirán buscando fortuna individual donde se “viva mejor”, desracinados y desprovistos de todo sentido de solidaridad, comunidad, o ser social, en base a la aceptación en cada momento de los cánones de prestigio, categorías y elementos lingüísticos-culturales del imperialismo más fuerte.

Kultur monopolioen hedapen honek, gainera, kasu askotan hainbat balore zabaldu ohi ditu bere kultur produktuei “atxikita”. Irizpide kulturalak baino, ekonomikoak nagusi izanik, beste arlotan bezala kulturarenean ere kontsumoa bultzatzen da, indibidualismoa balore gisa goraipatuz eta kulturen izaera komunitarioa bigarren maila batean utziz.

SAKONTZE EGITASMOA

Homogeneizazio indar hauen arriskuari buruz beste erreferentzia interesgarri bat eskaintzen digu ondorengo lerroetan Pierre Bourdieu soziologo frantziar ospetsuak. Aniztasunaren galera arriskua azpimarratzen digu batez ere:

—¿En qué perjudica la mundialización?

—*Hace muchos años dijeron que yo exageraba porque expliqué en una conferencia que si continuaban practicando la agricultura actual desaparecerían las diferencias. Borgoña sería lo mismo que Bordeaux, y hasta los vinos terminarían pareciéndose.*

—¿Cómo sucedería eso?

—*Por la destrucción de la capa superficial de la tierra. Bueno, resulta que eso empezó a pasar. La gente pregunta: ¿ahora qué hacemos? Les contesto: reconstruyamos el suelo, pongamos gusanos.*

—¿Por qué le interesa tanto mantener las diferencias?

—*Porque sería una lástima perderlas.*

—¿Por qué un francés debería preocuparse tanto como usted de conservar las diferencias entre Borgoña y Bordeaux?

—*Porque en la diferencia está el gusto. A más diferencia, más gusto. ¿Acaso a alguien le gusta comer un solo tipo de manzana?*

—Usted dice que presentar la mundialización como algo fatal es un acto deliberado. ¿Cómo podría generarse una oposición a los efectos más dañinos de la mundialización? ¿Quiénes deberían empezar?

—*Los que se den cuenta de los costos escondidos de la ganancia maximizada. Antes en los Estados Unidos decían: “Lo que es bueno para Ford, es bueno para los norteamericanos”. Ahora en todo el mundo se dice: “Lo que es bueno para la economía es bueno para todos”. Y no es así. No hay provecho para todos.*

—¿Qué costos notorios hay?

—*Los que mencioné antes. Y el daño ecológico. Pero también la violencia. Hay relaciones muy obvias. En los Estados Unidos, la política neoliberal extrema y la cantidad de cárceles son correlativos. Lo mismo ocurre con la relación entre la miseria y el sida. A más neoliberalismo, más cárceles, y más encarcelados. A más pobres, más sida.*

—¿No es un planteo maniqueísta? ¿La mundialización no tiene ninguna ventaja?

—*En todo caso, no tiene sólo ventajas.*

Bistan da Bourdieouk kalte eta arriskuak ikusten dituela mundializazioan onurak baino gehiago. Bere aurkako jarrera argi azaltzen du ondoren, eta zer pentsatua ematen duten azalpen batzuk ere, kultur izaera propioak geroan mantentzeko etor daitezkeen zailtasunei buruz:

—Pero usted plantea sólo las desventajas.

—*No hay que olvidarse de que yo hablo en reacción al discurso dominante. Y el discurso dominante no dice nunca lo que yo digo. Algunos me acusan de parcialidad. Es una paradoja que sea yo el que suene parcial. Claro, quedo*

SAKONTZE EGITASMOA

como un excéntrico porque el otro discurso aparece como universal. No sólo soy excéntrico, según ese criterio. También bizarro. Y exagerado.

—¿La suya es una posición moral?

—*Digamos que fui pasando de una actitud profesional a una actitud pública. Hice público lo que estaba aprendiendo en mi vida profesional. Me parece que ése era mi deber.*

—¿Por qué un deber?

—*Si sé que ocurrirá una catástrofe y no lo aviso, estoy cometiendo algo parecido a un delito de no asistencia a una persona en peligro. Hace un tiempo tuve la oportunidad de discutir el problema de la mundialización de la cultura con productores y gente del sector. Muchos de ellos pensaban de buena fe que la concentración de empresas formaría conglomerados poderosos, y que ese poder contribuiría a la difusión de la cultura. Yo les dije que estaban equivocados. En el cine las diferencias se están borrando igual que entre Borgoña y Bordeaux. Ya no hay más cine italiano, no hay cine húngaro, hay cine francés solo por ayuda del Estado. Lo mismo pasa con las editoriales, cada vez más concentradas. Bertelsman, la alemana, puso un piso de ganancias que debe obtener. Por eso algunos libros no serán publicados por ellos, y una segunda categoría será la de los libros que se publiquen pero sean menos difundidos. En general, la concentración destruye las condiciones de producción cultural de productos sin mercado amplio y seguro. Volvemos al pasado, cuando en la historia de la humanidad las grandes obras tuvieron mercado póstumo y éxito póstumo. Sus autores no lo vivieron.*

—¿No hay, al mismo tiempo, un acceso cada vez más masivo a la cultura?

—*Sí, pero sólo en apariencia. Todo está amenazado por el proceso de concentración económica.*

Testuinguru berri honetan, hainbat aldaketa ematen ari dira kulturaren esanahiaren inguruan. Tradizionalki herri baten edo komunitate baten kulturak jaso eta adierazi izan ditu komunitate bateko kide guztiek partekatzen zituzten mundua ikusteko moduen adierazpenak.

Egun, ordea, kulturaren kontzeptua lausotzen eta eraldatzen ari dela esan daiteke. Garai batean gizarte bateko kide guztiek bertako kultur adierazpenak ezagutuko zituzte, eta partekatu, eta elkarrekin berritu, kasuan kasuko sinbolo eta adierazpen kulturaleri esanahi amankomun bat emanaz eta berau kultur jardueraren bidez indartuz. Gaur egun, ordea, gizarte berdin batean, komunitate batean, gero eta aniztasun gehiago topatzen dugu bertako kideen kultur hautuan, eta badirudi gero eta gutxiago direla mendealdeko gizarte modernoetan bertako kide guztientzat esanahi bat —are gutxiago esanahi berdina— duten kultur elementuak.

Balore eta kultur adierazpen aniztasun honek, noski, kultur jardueran bertan eragiten du, eta nolabaiteko noraeza ere sortzen du.

3.3.2 Balore sistemen erlatibizatzea eta esanahi krisiak

Kultur adierazpenekin gertatzen den antzera, gizarte modernoetan eta mundu globalizatuan balore sistemei dagokionean ere hainbat aldaketa ematen ari dira: dagoeneko gizarte batean ez dago balore sistema bakar edo nagusi bat, maila indibidualizatuago batean bakoitza bereak garatzen ari da.

Berger eta Luckman-ek *Modernismo, pluralismo y crisis de sentido. La orientación del hombre moderno* beren lanean azaltzen dituzte ematen ari diren aldaketa prozesu hauek, eta ondorioz datozen esanahi krisiak. Zenbait aipu aukeratu ditut lan horretatik, balore mailako aldaketak gure kultura eta hizkuntza bera ulertzeko dugun moduarekin, eta ondorioz egiten dugun erabilpenarekin lotura zuzena baitu nire ikuspegitik:

(...) en las sociedades modernas. Aquí, los principales aspectos estructurales de este pluralismo han sido elevados a la categoría de valor “ilustrado”, que prevalece sobre los diversos sistemas de valores que coexisten y compiten entre sí. De este modo, por ejemplo, la tolerancia es considerada como la virtud “ilustrada” por excelencia, ya que sólo gracias a ella los individuos y las comunidades pueden vivir unos junto a otros, establecer relaciones mutuas y, al mismo tiempo, orientar su existencia hacia valores diferentes. Esta forma moderna de pluralismo constituye, no obstante, la condición básica para la proliferación de crisis subjetivas e intersubjetivas de sentido. La pregunta acerca de si el pluralismo moderno conduce necesariamente a estas crisis admite varias respuestas. Sin embargo, se podría afirmar con certeza que en países industriales altamente desarrollados –esto es, aquellos donde la modernización ha llegado más lejos y donde la forma moderna de pluralismo se ha desarrollado plenamente- los sistemas de valores y las reservas de sentido han dejado de ser patrimonio común de todos los miembros de la sociedad. El individuo crece en un mundo en el que no existen valores comunes que determinen la acción en distintas esferas de la vida, y en el que tampoco existe una realidad única idéntica para todos.

.../...

Los pálidos valores supraordinales del pluralismo .../... no sirven para contrarrestar en forma directa la propagación de las crisis de sentido. Dichos valores le dicen al individuo cómo comportarse frente a otras personas y otros grupos que tienen distintas visiones de la vida. Sin embargo, no nos dicen cómo deberíamos conducir nuestra vida cuando comienza a temblar el carácter incuestionado del orden tradicional. (...) A medida que decrece el grado de condicionamiento socialmente válido de interpretaciones compartidas de la realidad, distintas comunidades de vida pueden desarrollarse en forma progresiva hasta transformarse en comunidades de sentido cuasi autónomas.

.../...

SAKONTZE EGITASMOA

Durante la mayor parte de la historia humana era imposible concebir una sociedad sin una religión única que abarcara todo y todos. Los dioses de mis antepasados eran naturalmente mis propios dioses; mis dioses eran ciertamente también los dioses de todos los miembros de mi tribu o de mi pueblo.

.../...

(tartean aipatzen dute nola gaurko egoeran azpikulturak osatzen diren)

Estas subculturas, que por lo general son comunidades de convicción voluntarias, ya no ofrecen la seguridad de las antiguas comunidades de vida y sentido que estaban en órdenes sociales de valores y sentido. No obstante, por medio de diversas formas de comunicación y de relaciones sociales, ellas pueden librar al individuo de crisis de sentido inmanejables.

.../...

A causa de la modernización ha resultado más difícil, ni no absolutamente imposible, imponer de un modo monopolítico sistemas localizados de sentido y valores a sociedades completas.

.../...

El éxito de la sociedad moderna se debe, aparte de estas “islas de sentido” a la legalización de las normas de la vida social y su “moral anticuada”, como también a la moralidad formal de ciertas esferas de acción más o menos profesionalizadas.

.../...

Tanto la legalización como la moralización crean condiciones conforme a las cuales la gente maneja su vida cotidiana sin una moral compartida y global.

Una sociedad con estas características puede comportarse con un código de circulación. Nos detenemos ante la luz roja y seguimos avanzando cuando se enciende la verde; y el mantenimiento de estas reglas beneficia a todos los conductores y transeúntes. Así pues, normalmente podemos confiar en que la gente acatará el código sin que sea necesario legitimarlas en elevados términos morales.

.../...

El factor más importante en la generación de crisis de sentido en la sociedad y en la vida de los individuos tal vez no sea el secularismo supuestamente moderno, sino el pluralismo moderno. La modernidad entraña un aumento cuantitativo y cualitativo de la pluralización. Las causas estructurales de este hecho son ampliamente conocidas: el crecimiento demográfico, la migración y, como fenómeno asociado, la urbanización; la pluralización, en sentido físico y demográfico; la economía de mercado y la industrialización que agrupan a personas de los tipos más disímiles y las obligan a interrelacionarse en forma razonablemente pacífica; el imperio del derecho y la democracia, que proporcionan garantías institucionales para esta coexistencia pacífica. Los medios de comunicación masiva exhiben de manera constante y enfática una

SAKONTZE EGITASMOA

pluralidad de formas de vida y de pensamiento: tanto por medio de material impreso, al que la población tiene fácil acceso debido a la escolaridad obligatoria, como por los medios de difusión electrónicos modernos. Si las interacciones que dicha puralización permite establecer no están limitadas por “barreras” de ningún tipo, este pluralismo cobra plena efectividad, trayendo aparejada una de sus consecuencias: las crisis “estructurales” de sentido.

.../...

Los modernos procesos de pluralización se distinguen de sus predecesores no sólo por su enorme alcance (afectan a círculos mucho más amplios), sino además por su celeridad: mientras sus repercusiones se extienden en forma progresiva a “nuevos” países, no permanecen estáticos; en sociedades que ya se encuentran altamente modernizadas su influencia crece de manera acelerada.

El pluralismo moderno conduce a la relativización total de sistemas de valores y esquemas de interpretación.

Nire ikuspegitik gizarte modernoetan ematen ari diren aldaketa guzti hauek kontuan hartzea ezinbestekoa izango da hizkuntza eta kultura gutxiagotuek ondorengo urteetako gizarteetan ere aurrera egin dezaten.

Horretarako, oreka nahiko bihurri batean mugitu beharko dute: batetik, ordezkatzeko duten komunitatea batuta mantentzeko erreferentzia baliagarriak eskaini, komunitateko kide guztiak bere egingo dituztenak eta kultura edo hizkuntza horrekin identifikatzeko balioko dietenak. Eta aldiberean, modu indibidualizatu batean funtzionatuko duen gizarte batentzat norberaren kontsumo indibidualerako produktu kultural berriak eta hizkuntza baliabideak sortuz.

3.4 Hizkuntza eta kultur mailako ondorioak

3.4.1 Aldaketak hizkuntza komunitatean eta berauen harreman sareetan

Historikoki hizkuntza komunitate bakoitza eremu geografiko jakin batean garatu izan da. Hizkuntza eta kultur komunitate bat nortzuk osatzen duten definitzeko garaian, sarri “harremanen maiztasun eta intentsitate” parametroak erabili izan dira: alegia, komunitate bateko kideak, “beraien artean gizarteko gainerako kideekiko baino harremanen maiztasun eta intentsitate handiago bat, desberdin bat, duten kideak dira (labur esanda).

Harreman hauen nolakotasunak eragin nabarmena izan du mendetan zehar komunitateen garapenean. Hizkuntzaren korpusean bertan ere badugu horren adibiderik: euskalkien bereizketa eta mugek zerikusi handia izan dute, besteak beste, banaketa eta muga geografiko naturalekin, edo beste era batera esanda, harreman maiztasun eta nolakotasunarekin.

Komunitate bateko kideen arteko harreman sareak eragin nabarmena du hizkuntzaren erabilpenean, bere garapenean eta hiztun horien arteko trinkotasunean. Dimentsio honetan, norekin zein harreman eta zein gaien inguruan dugunaren dimentsioan, aldaketa handiak ematen ari dira globalizazio prozesua tarteko dela.

Hainbat aspektutan hurbileko herikideekiko harremanak aldatu ez badira ere, giza talde ezberdinen arteko harremanei dagokionean aldaketa handiak ematen ari dira eta emango dira datozen urteetan. Urte gutxitan, urruneko komunitate eta errealitate batean bizi den beste pertsona batekin harremanak izateko eta bere errealitatea ezagutzeko aukerak biderkatu eta azkartu egin dira.

Gaur egun, bazkalostean lagunekin kafea hartu eta, hortik ordu pare batera, etxeko ordenagailuan eseri eta bi urte lehago Maroko-n ezagututako australiar lagun bati e-maila bat idatziko diogu. Edota berarekin txat-eatu! Geroxeago, saretik, Mexikon edo Errusian emititzen den irrati batek jartzen duen musika entzun dezakegu, eta bi ordu beranduago herriko antzerki taldeak prestaturiko antzezlan bat ikustera joan, agian New York-eko homeless-en istorio bati buruz izango dena!

Adibide soil bat baino ez den honekin adierazi nahi dudana da harremanen orain arteko eskema eta antolaketa oso urte gutxitan asko aldatu(ko) dela.

SAKONTZE EGITASMOA

Linguapax kongresuan Albert Bastardas irakasle kataluniarrak eginiko komunikazioan honela adierazten digu prozesu hau:

-les innovacions en les tecnologies de la comunicació- en el 'primer món' especialment, l'aparició del fenomen d'Internet ha fet possible com a fet quotidià el contacte amb persones i continguts de procedència molt allunyada, trencant així les constriccions de la proximitat física. Moltes persones avui es comuniquen per via electrònica amb d'altres que resideixen molts quilòmetres enllà i que poden tenir com a llengua inicial codis molt distints. Alhora, els satèl.lits de comunicacions fan possible cada vegada més l'exposició a emissions produïdes també molt enllà del lloc de recepció, i també, doncs, vehiculades en llengües distintes a les de la comunitat tradicional.
.../...

El fet és, per tant, que assistim a un eixamplament important de les àrees tradicionals de comunicació i d'interrelació humanes, les quals havien assegurat fins ara el manteniment d'un cert status quo històric que, si més no per a aquells grups que havien pogut mantenir el seu autocontrol polític, havia permès de mantenir els individus i les societats en un cert monolingüisme funcional.

3.4.2 Harreman sareak aldaketan azterketarako tresna gisa

Zentzu honetan, globalizazioaren fenomenoak izango dituen eraginak, eta konkretuki hizkuntza kontuetan izango dituen eraginei begira kontzeptu argigarri eta erabilgarria da harreman sareena, grafikoki adierazten laguntzen digulako ematen ari diren aldaketak.

HIZNET ikastaro honetan bertan ere izan dugu aukera gaia hurbiletik ezagutzeko. Kontxesi Berrio-Otxoak prestatuturiko “Gizarte sareen metodologia”ren bidez landu dugu gaia. Harreman sareen izaera eta funtzionamenduari buruzko oinarri teorikoa oso lagungarri zaigu, nire ikuspegitik, bizitzen ari garen globalizazio prozesuak hizkuntza bidezko harremanetan nola eragin dezakeen ohartzeko.

Sareek interakzio prozesuak adierazten dituzte eta prozesu hauetan hainbat ezaugarri bereiz daitezke sare barneko harreman bat definitzeko unean. Harremanen bost ezaugarri bereiz daitezke:

SAKONTZE EGITASMOA

- 1) *Edukia: elkarrekin harremanetan dauden pertsonen helburu bat dute lotura horiek sortzeko eta hori izaten da egoera horren edukia. (...)*
- 2) *Norabidetasuna: aktoreen arteko loturak elkarrekikoak izan daitezke ala norabide bakarrekoak, hau da, batzuetan haietako batengandik besteenganako harremanak izango dira baina ez alderantziz (nagusia-langilea...) eta besteetan, berriz, norabide bietako aktoreen arteko loturak emango dira (...)*
- 3) *Iraupena: gizarte sareek bizitza epe zehatz bat irauten dute. Epe horretan sareak aldaketak izan ditzake bere tamainan nahiz ezaugarri kualitatiboetan. (...)*
- 4) *Intentsitatea: aktoreek elkarrekiko duten inplikazio mailaren berri ematen digu. Kontzeptu hau ez da hurbiltasuna, distantzia, maiztasuna edo aurrez aurreko harremanarekin nahastu behar, zeren eta zenbait kasutan urrun dauden aktoreek (distantzian aldendurik dauden arlo berdineko bi ikertzailek, adibidez) intentsitate handiagoa izan dezakete gertuago dauden beste batzuek baino.*
- 5) *Maiztasuna: sare bat osa dadin aktoreen arteko harremanetan nolabaiteko maiztasuna beharrezkoa da. Dena dela, maiztasun handia izanda ere intentsitatea txikia izan daiteke eta alderantziz (...).*

Hizkuntzaren erabilera gizarte harremanetan gauzatzen denez, gizarte sarearen metodologia interesgarria da harreman horiek aztertzeko. Zenbait autorek garrantzi handia ematen diote sarearen kontzeptuari, hizkuntza eta gizartearen arteko zubia delako (Villena, 1992:44); beste era batera esanda, banakako eta instituzio mailak modu egokian harremanetan jartzen dituelako. Zentzu honetan, hurbilpen soziologikotik hartuta sarea funtsezko kontzeptua izango litzateke.

Gizarte sareen metodologiaren balioa azterketa soziolinguistikorako ematen duen kontzeptualizazioan eta analisi enpirikorako ekarpenean datza. Batetik, sareen kontzeptuak gizarte egituraren harreman egonkorak edo erregularrak kontuan hartzen dituelako eta, bestetik, harreman hauen egoerei eta osagaiei buruzko araketa eta definizio zehatza burutzen dituelako. Bestalde, metodologia honek hizkuntzaren erabilera harreman ingurune egituratu batean kokatzen du eta, beraz, harreman horien egitura eta ezaugarriak aztertuz hizkuntzaren erabileran dauden eragileak era osatuagoan azter ditzakegu. Azkenik, partaide bakoitzaren ezaugarrien berri ere jaso daiteke, informazio mota honekin azterketa hornituz. Beraz, gizarte sareen metodologiak hiru motatako informazioa eskaintzen digu

SAKONTZE EGITASMOA

batera: partaide bakoitzarena, gizarte egiturarena eta, azkenik, lehenengoek gizarte egitura horretan sortzen dituzten harremani buruzkoa. Hiru informazio iturri horietatik abiatuta, hizkuntzaren hautaketan edo erabilpenean agertzen diren eraginak era osatuagoan aztertzea ahalbidetzen da.

Komunitate mailan harreman sareek aldaketak ezagutuko dituzte aipatu bost mailetan. Eta aldaketak nondik etorriko dira? Nik bi elementu azpimarratuko nituzke:

- Batetik, harreman birtual edo internet bidezkoa: lanean zehar hainbat aldiz aipatu bezala, aurrerantzean gure hurbileko komunitateak harremanak mantentzeaz gain, aldiberean mundu mailako hainbat lotura gero eta gehiago erabiltzen joango gara, kanpoko informazioa jasoz eta etengabe maila lokala eta globala tartekatuz.
- Bestetik, maila fisikoan, pertsonen joan-etorria ugaritu ahala, etorkinen presentzia ugaritu egingo da eta horrek eraldatu egingo du hizkuntza komunitateen egungo errealitatea.

Euskararen eta euskal kulturaren kasuan azken puntu hau bereziki garrantzitsua delakoan nago. Gure hizkuntza komunitatearen dimentsioa txikia izanik, eta Euskal Herrian bertan euskal hiztunak gutxiengo izanik, euskaraz bideratzen diren eguneroko harremanen sarea mugatua da. Harreman sare hauetan kanpotik etorritako elementuak txertatzeak eragin zuzena izan dezake euskara erabiltzeko aukera errealean, tradizioz euskararen babesgune izan diren herri txikietan batez ere.

J.L. Albarez Enparantza “Txillardegí”k bere garaian garaturiko *eredu matematikoa* lagungarri zaigu balizko eragin hau aurreikusteko.

3.4.3 Harreman sareen aldaketa eta euskararen erabilera

Etorkinen etorreraz aritu garenean ikusi dugu nola gaur egun Euskal Herrian %1-2 inguruko kopuruetan mugitzen garen. Hasiera batean, pentsa daiteke kopuru horrek ezin duela eragin handirik izan euskararen erabilera aukeretan.

Aipatu etorkinak hiri handietan kokatzen badira, estatistikoki beraien eragina txikia izango da: probabilitate nahiko baxua dago elementu gutxi hauek Donostian edo Bilbon euskaraz funtzionatzen duten harreman sareetan eragiteko.

SAKONTZE EGITASMOA

Baina zer gertatzen da herri txikietan? Zenbatekoa izan daiteke Orio edo Arbizu bezalako herri txikietan 100 edo 200 etorkinen etorreraren eragina eguneroko harreman sareetan eta ondorioz euskararen erabileran? Proporzioan, askoz handiagoa.

Eragina zenbaki zehatzetara ekartzea ez da samurra, tartean aldagai asko daudelako. Besteak beste, kasua desberdina izango da etorritako etorkinek gaztelania badakite edo ez, denek hizkuntza amankomunen bat badute edo ez, herriko bizitzan hasieratik integratzen diren edo ez, haurrik duten edo ez..

Baina dagoeneko baditugu han-hemenka hainbat adibide. Ondarroan arrantzan egitera etorritako bi edo hiru etorkin ontzi batean lanean hasteak denbora gutxian ekar dezake –etorkin horiek gaztelania bai baina euskara ulertzen ez dutela suposatuz- 15-20 arrantzalaren eguneroko laneko hizkuntza gaztelania bilakatzea. Edota Mendaro bezalako herri batean, arratsero haur guztiek batera jolasten duten plaza batean gaztelania bakarrik dakien etorkin familia bat edo bi egoteak ekar dezake haurren arteko jolas eta kontakizun asko automatikoki euskaratik gaztelaniara pasatzea.

Zentzu horretan, Txillardegiren eredu matematikoak laguntzen digu ikusten nola, euskaldun guztiak elebidun garen honetan, elementu elebakar gutxi batzuen eragina oso handia izan daitekeen erabileran, euskara erabiltzeko baldintza sozialetako bat elkarriketan parte hartzen duten kide guztiak euskara jakitea baita.

Alde horretatik, lehentasunezkoa izango da datozen urteetan herri txikietara iristen diren etorkinekin ahalegin berezi bat egitea, herriko harreman sareetako partaide izatera pasatzen diren neurrian hemengo hizkuntza eta kultur errealitateari informazioa beraien eskura jarritz eta beren seme-alabak zuzenean euskarazko ereduetan sar ditzaten gonbidatuz. Honek, halaber, hezkuntza mailan orain arteko baliabideak errealitate berrira egokitzea ere eskatzen du, euskara zuzenean arabieratik, errumanieratik edo beste hizkuntza batzuetatik ikasteko material egokiak sortuz eta geure hiztun jarrerak errealitate berrira egokitzeko esfortzuak eginaz.

Euskararen kasutik katalanarenera jauzi eginaz, Miquel Siguanek ere azalpen argigarriak eskaintzen dizkigu datozen urteetako errealitateari buruz eta hizkuntza gutxiagotuek aurrera egiteko izango dituzten aukera eta zailtasunen inguruan. 2002ko udaberrian argitaraturiko *Llengües globals, llengües locals* bilduma laneko bere artikuluan honela dio:

SAKONTZE EGITASMOA

Aquestes dificultats i perills tenen en primer lloc una raó demogràfica. Els índexs de natalitat als Països Catalans són molt baixos, inferiors al nivell de substitució generacional, i això vol dir que si actualment, en xifres aproximades, tan sols el cinquanta per cent de la població té el català com a primera llengua d'aquí a trenta anys aquesta proporció serà encara menor. El segon motiu està relacionat amb els desplaçaments de població que la globalització afavoreix: població estrangera, turisme, immigració ala recerca de la subsistència. És fàcil preveure que, d'aquí a trenta anys, entre el cinc i el deu per cent de la població dels Països Catalans tindrà com a primera llengua una llengua diferent del català i del castellà: àrab, berber, urdú, alemany... I en tercer lloc, i també com a conseqüència de la globalització, d'aquí a trenta anys la presència i el pes de l'anglès seran més forts que avui.

La il·lusió d'alguns en el fet que amb unes polítiques lingüístiques apropiades es produiria una normalització, entesa com a retorn a un monolingüisme català, fa temps que s'ha esvaït. En un futur previsible, el català continuarà existint però en un aiguabarreig de llengües, algunes d'aquestes molt fortes a nivell internacional, on haurà de guanyar dia a dia la seva permanència. I serà la decisió dels habitants de les terres catalanes de continuar parlant la seva llengua i les seves opcions polítiques a l'hora de triar governants que la defensin allò que decidirà el futur de la llengua.

3.4.4 Ingelesaren nagusitasuna mundu mailan. Suitzako adibidea

Ingelesaren mundu mailako zabalpena gero eta nabarmenagoa da. Urteak dira esparru ekonomikoan eta zientzia zein teknologia arlotan mundu mailako "lingua franca" dela. Baina hedapena ez da horretara mugatzen. Gaur egun, funtzio horietatik komunitate barneko zenbait funtziotan ere ari da sartzen.

Horren adibide, Suitzan bertan ere –non eta Suitzan, eleaniztasuna eta lurraldetasun printzipioaren aplikaziorik eraginkorrena egin den lekuan– ingelesa barne komunikazioan erabiltzearen aldeko ahotsak entzuten hasi izana:

Tot això pot interpretar-se com una simple variant d'un problema gens original: la difusió de l'anglès com a llengua "global" (terme oposat a merament "internacional") que suposa una amenaça per a la naturalesa lingüística i cultural de les societats que fins ara funcionaven amb altres llengües- siguin llengües vehiculars importants o llengües molt

SAKONTZE EGITASMOA

minoritàries. La irrupció de l'angles en les esferes lingüístiques quotidianes és un motiu de preocupació potser en la majoria de països no anglosaxons. Tanmateix, en el context particular de Suïssa, aquesta irrupció pot tenir efectes especialment perjudicials, als quals em referiré a continuació.

Efectivament, la majoria de ciutadans suïsos consideren que l'anglès podria ser la manera més efectiva de resoldre els problemes de comunicació entre les comunitats amb llengües diferents, concretament el grup de parla alemanya d'una banda, i les minories "llatines" d'altra. A part del fet que això perjudicaria greument la credibilitat del model suís tradicional, el que, al meu entendre, és més preocupant és que implica una deslegitimilització de les llengües nacionals suïsses –o, més concretament, una deslegitimilització de les llengües d'altres comunitats del país. La deslegitimilització de la llengua pot ser un element precursor deslegitimilització de les comunitats que parlen aquestes llengües.

3.4.5 Euskal kultura globalizazioaren aurrean.

Ikusi dugunez, datozen aldaketek eragin orokorrak izango dituzte, eta ez bakarrik orain arte "minorizatu" gisa izendatu izan diren hizkuntzetan. Hala ere, gehien interesatzen zaigun kasua geurea izanik, atal hau bukatzeko, Patxi Juaristiren *Euskal Herria globalizazioaren aurrean* lanetik hautaketa hau egin dut, euskarari eta euskal kulturari aldaketa guzti hauek izan dezaketenen eragina egoki azaltzen digulakoan.

Euskal kulturaren gazi-gozo hauek guztiak ikusi ondoren, globalizazioarekin datorkigun homogeneotasun kulturalari aurre egiteko euskal kulturak alde sendo eta ahulak dituela ondorioztatu beharrean gaude.

Alde ahulak dira, globalizazioak joera bateratzaileak bultzatzen dituela, eta euskara eta euskal kultura txikiegiak direla eta, zenbait arlotan, makalegi daudela errotarri homogeneitzaile eta oro-birrintzaile horri aurre egiteko. Ingelesa eta gaztelera bezalako hizkuntza handiak hedatzen doazen heinetan, indiarak, jamaikarrak eta euskaldunok ere antzerakoagoak izango gara pentsamolde, ohitura eta iritzietan.

.../...

Arrazoi asko dago pentsatzeko globalizazioak sortzen dituen indar eta sinergien itsasoan gurea bezalako hizkuntza eta kulturek irauteko aukera

SAKONTZE EGITASMOA

gutxi dutela; batez ere teknologia berriek hizkuntza eta kultura gutxi batzuen gainhartzea ahalbidetuko dutelako.

.../...

(dena den)

Zenbait arlotan homogeneotasun kulturalari aurre egiteko ahulegiak direla onartu badugu ere, indarberritzeko aukera ugari ere agertzen zaizkie erabaki estrategiko batzuk hartzen badituzte. Zehatzago esateko, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak behar bezala erabiltzen badituzte.

Izan ere, aurrerapen teknologikoen bitartez, hizkuntzen arteko mugak gainditu ahal izango dira, eta edozeinek ahal izango du nahi duen mezua nahi duenean plazaratu. Kultura eta hizkuntza aniztasuna eredu menperatzaile berberen mende gelditzeko joera txikiagotu egingo da, beraz. Teknologiek irekitzen duten atea zabalik izanik euskal kultura bezalako kultura txikiak ez dira kultura handien menpe geldituko; eurengandik edango dute euren eskainiz ordainean.

3.4.6 “time is short”

Aldaketa guzti hauen aurrean hizkuntza eta kultur gutxiagotuek beren eskura dituzten baliabide guztiak erabili beharko dituzte, eta berriak sortu, beren hiztunentzat tresna baliagarri eta garrantzitsu izaten jarraitu ahal izateko.

Prozesu honetan bada, gainera lehendik gutxiagotuak diren hizkuntzen erreakzioa lehenbailehen izatea eskatzen duena. Lanaren lehen ataletan ikusi bezala, berrikuntza teknologikoak etengabeak dira eta gero eta abiada biziagoan ematen dira. Eta aldaketak beti etorriko dira hizkuntza eta kultura ekonomikoki boteretsuen eskutik. Alde horretatik, komunitate txikiek izaera malgua garatu beharko dute datozen urteetan, izan ere, Bastardas irakasleak bere *Un Estado, una lengua?* liburuko artikulua batean adierazi bezala:

“...el tiempo es una variable que siempre juega a favor del más fuerte”

4 Egitasmo interesgarriak eta jorratu beharreko bideak

4.1 Sareko errekurtsoak garatu, adibidez Atlantis egitasmoa:

Orain arte ikusitako guztia kontuan izanik, bistan da garai berrietara egokitzeko hizkuntza eta kultura minorizatuek baliabide teknologikorik berrienak erabiltzen egunera egotea eta trebeak izatea beren biziraupenerako gakoetako bat izango dela.

Noski, komunitatearen oinarria orain arteko harreman sarea izango da gerora ere, baina harreman sare hauetan elementu teknologikoak ahalik eta modurik naturalenean txertatzea eta eredu propioak sortzea ezinbestekoa izango da hizkuntza gutxituen hiztunek beren hizkuntza garai berrietara egokitutako tresna gisa bizitu eta erabili dezaten.

Norabide honetan, Linguapax kongresuan aurkezturiko egitasmorik interesgarrienetarikoa bat Atlantis egitasmoa izan zen. Ondorengo hau da bere oinarria eta helburua:

El proyecto Atlantis nació en la primavera del 2001 gracias al apoyo de la Dirección General de Educación y Cultura de la Comisión Europea, con la voluntad de aprovechar las numerosas posibilidades que ofrece la sociedad de la información para crear espacios y herramientas para el uso de las lenguas minoritarias. Con la puesta en marcha de la base de datos queda lista la primera fase del proyecto durante la cual también se ha desarrollado la web del Observatorio Atlantis.

La web contribuirá a hacer posible el objetivo del proyecto global: construir una plataforma que unifique los esfuerzos de todas las lenguas minorizadas de la UE, estableciendo sinergias que faciliten su expansión en Internet. En la base de datos se pueden localizar webs de recursos educativos, tecnologías del lenguaje (correctores, traductores), recursos digitalizados (bibliotecas, música), televisiones y radios en línea, y prensa y publicaciones en catalán o en el resto de lenguas minorizadas de la UE. El proyecto Atlantis está coordinado por el profesor de la UOC Miquel Strubell y participan, además de la UOC, el Research Centre on Multilingualism (con el apoyo de la Universidad de Hamburgo), la Katholieke Universiteit Brussel (Bruselas).

<http://www.uoc.edu/in3/atlantid> helbidean, hortaz, gaur egun Europako hizkuntza gutxitu bakoitzaren inguruan sorturiko sareko baliabide guztiak ditugu eskura.

SAKONTZE EGITASMOA

Zalantzarik gabe, datozen urteotan jorratu beharreko bideetariko bat dugu hau, besteek egindakotik ikasteko, norberak bere hizkuntzara egokitze eta sinergia “telematiko” berriei bideak zabaltzeko.

4.2 Hizkuntza gutxituetako hiztunak eleanitz:

Gaur arte, hainbat hizkuntza komunitatek elebakar iraun izan dute belaunaldiz belaunaldi. Mendebaldeko eredu ekonomikoaren zabalpenak, hizkuntza boteretsu gutxi batzuen hedapen inposatuak eta ondoriozko komunitateen arteko kontaktuen ugaritzeak urte gutxitan hiltzera kondenatu ditu hiztun gutxiz osaturiko komunitate txiki isolatuak, beren ohizko bizibidea eta gizarte antolaketa ezinezko egin eta aldatzera behartzen dituen neurrian.

Unescoren txostenak edota Carmen Junyent eta beste hizkuntzalari askoren lanek adierazten duten bezala, munduko hizkuntza aniztasuna modu ikaragarrian ari da gutxitzen urte gutxitan, eta aipatzen diren aurreikuspenen arabera, munduko hizkuntza aniztasunaren % 90 desagertu daiteke datorren mende honetan zehar.

Izan ere, mendebaldeko eredu ekonomikoaren etengabeko zabalpenak baldintza bat inposatzen die hizkuntza gutxituetako kideei: hizkuntza boteretsu eta “handi” horiek –batez ere ingelese- ezagutzea sistematik erabat kanpo edo kokapenik baztertuenean geratu nahi ez badute.

Testuinguru honetan, hizkuntza gutxituetako hiztunek bi aukera ditugu nagusiki: eleanitz bihurtzea, hurbileko komunitatean gure hizkuntza propioan bizituz eta kanpoko harremanetarako beste hizkuntzak erabiliz. Edota, Afrikako eta Hego Amerikako komunitate askoren kasuan bezala, zuzenean hizkuntza “menperatzaile” horietako hiztun bihurtu, norberaren hizkuntzari eta identitateari uko eginez, horrek dakartzan deserrotze eta identitate gabezia arazo guztiekin.

Mehatxatuta egonik ere, mendebaldeko gizartearen baitan kokaturik gauden hizkuntza gutxiagotuen hiztunontzat, hortaz, ezinbestekoa zaigu eleanitzak izatea gure hizkuntzan bizitzen jarraitu ahal izateko.

4.3 Itzulpen automatiko sistemak garatu beharra

Aurrez aipaturiko Atlantis datu basean era guztietako errekurtsuak jasotzen dira: hiztegiak, hizkuntzak ikasteko metodo telematikoak, kultur baliabideak... Guzti hauen artean garrantzia berezia izango du datozen urteetan itzulpen sistema automatikoak hizkuntza gutxiagotuen zerbitzura jartzeak.

SAKONTZE EGITASMOA

Andoni Sagarnak HIZNET ikastaroko *Euskara eta teknologia berriak* ikasgaian dioskunez:

Ordenagailuen ahalmena hazi den heinean, eta esponentzialki hazi ere, makinetan meta daitekeen eta denbora-unitateko prozesa daitekeen informazio-kopurua ere izugarri handitu da. Honi esker, gero eta hurbilago dago eguna hizkuntzaren aldibereko tratamendua egin ahal izango dena. Esan dezakegu haxe dela, hain zuzen, informazio teknologiek gaur egun duten erronkarik handienetako bat.

Baina, noski, enpresa pribatu handien ekimena beti egongo da zuzendua produkturik errentagarrienak sortzera, hau da, hizkuntzarik hedatuenen arteko itzulpen sistema automatiko eraginkorrak “berez” sortuko dira. Hizkuntza gutxiagotuen kasuan, aldiz, askoz zailagoa da merkatu parametro batzuetan produktu hauek errentagarri izatea, baina aldiz estrategikoa da hizkuntza hauentzat mota honetako sistemak sortzea –kasu honetan baliabide publikoak erabiliz beharko du, hortaz-.

Sagarnak dioen moduan,

Informazio- eta telekomunikazio-teknologiek erabiltzen dituzten azpiegitura fisikoak (makinak, sareak) neutroak dira hizkuntzekiko, baina informazioa metatzeko, tratatzeko eta transmititzeko aplikazioak eta edukiak hizkuntza bakoitzerako prestatu behar dira.

Apustu estrategikoa da hau, esan bezala, arrazoi nagusi batengatik. Horrelako sistemak garatzeak mundu mailan aldiro sortzen den informazio guztiaren zati handi bat euskaraz jasotzeko aukera emango digu, eta baita guk euskaraz sortutakoaren berri automatikoki “munduari” emateko. Eta hori erabakiorra da etengabe beste hizkuntzetara jotzera behartuta egon nahi ez badugu.

4.4 Software librean oinarritutako programak erabiltzea (Linux)

Hainbat puntutan aipatu dugu lanean zehar nola gaur egun merkatuaren jabe diren enpresa handiek arautzen duten zerbitzu eta produktuen sorkuntza eta hedapena, eta horren adibiderik garbiena informatika arloan topatzen dugu Windows inperioarekin.

Hainbat ahalegin egin dira azken urteotan, esaterako, Katalunian eta Euskal Autonomi Erkidegoan Windows-ek gaztelaniaz merkaturaturiko produktuak

SAKONTZE EGITASMOA

itzultzeko, baina badirudi lasterketa horretan “beti atzetik” joatea egokitzen zaigula hizkuntza minorizatueta erabiltzaileoi.

Alde horretatik, benetan interesgarria iruditu zait Gotzon Egia Linguapax kongresuan aurkeztu zuen komunikazioa. Bertan hizkuntza gutxiagotuen kasuan, eta zehazki euskararen kasuan Linux bidearen edo software librearen bidearen aldeko apustua egiteko proposamena egiten du, horretarako pixuzko arrazoiak emanaz.

Horra berak azalduko ideiak:

para cuando la versión en euskera de Windows 95 comenzó a distribuirse, estábamos en la antesala de Windows 98, y Office 2000 en euskera comienza ahora a cobrar un poco de popularidad, cuando Microsoft ha lanzado ya su nuevo producto sustitutorio. Visto el ritmo trepidante en el que se crean, desarrollan y mueren los productos informáticos en la nueva era, resulta imposible que una comunidad de no más de dos millones de hablantes pueda seguir la rueda.

No tengo constancia de que haya datos fidedignos sobre el monto de la financiación que ha supuesto hasta la fecha esta vía. En la prensa hemos oído hablar de cientos de millones de pesetas. Sea cual sea el precio pagado, creo que se imponen dos reflexiones:

- *Los euskaldunes financiando productos de Microsoft: suena como a una inversión de papeles, como si se tratara de un jovencito dando la paga a su padre, ¿no les parece?*
- *Planteemos una pregunta: ¿en la actualidad qué valor tiene, en términos de mercado, el Windows 95 en euskera? ¿Cuánto vale hoy Office 2000, cuando Microsoft ha comercializado ya su nuevo producto de ofimática? Me temo que su valor se acerca bastante a cero. Por tanto, podemos decir que la depreciación comercial de la vía Microsoft es, además de meteórica, porcentualmente enorme.*

En conclusión, la vía Microsoft parece realmente impracticable para nosotros, muy a pesar del voluntarismo y la generosidad de nuestras instituciones públicas.

Aldiz, “Linux” bidetik, diru gutxiagorekin etekin gehiago lortzeko bidean egon gaitezke, gainera tresna malguak eta zaharkitzen ez direnak sortuz.

Esta manera de hacer las cosas supone intentar acomodarse a los nuevos tiempos y a las nuevas formas, es decir, acomodarse a las leyes de Internet en nuestro propio beneficio. Esta vía, hasta ahora no ensayada seriamente en el País Vasco, se refiere a un aspecto más general que revela la forma de trabajar de Linux: el código abierto, es decir, herramientas informáticas

SAKONTZE EGITASMOA

básicas, como sistemas operativos, instrumentos de diseño web y de difusión de datos a través de Internet, utensilios de localización o internacionalización de programas informáticos, realizados de manera voluntaria y prácticamente gratuita por la comunidad de Internet.

Esto que puede sonar a ingenuidad es algo perfectamente real, viable y operativo hoy en día. Dos datos pueden servir para sustentar semejante afirmación:

- En los Estados Unidos, cuando uno compra un ordenador personal puede elegir ya entre Windows y Linux como instalación básica de sistema operativo.
- La Unesco ha lanzado una vasta iniciativa de promoción y difusión de los programas informáticos de código abierto (http://www.unesco.org/webworld/portal_freesoft/index.shtml), con el objetivo de que los países y las personas que no disponen de recursos puedan incorporarse a la sociedad de la información.

En síntesis, esta vía implica dotarnos de la base para poder desarrollar futuras herramientas de manera prepositiva, es decir, anticipada a las necesidades que tengamos en cada momento, sin dependencia de estrategias comerciales que sobrepasan completamente nuestros intereses y capacidades.

Podríamos plantearnos la pregunta anterior sobre el valor en términos de mercado de lo que hemos denominado la vía Linux o, en general, el desarrollo de programas de código abierto. Estrictamente hablando, los programas de código abierto se distribuyen por lo general gratuitamente, su coste es bastante parecido a cero, de manera que es previsible que su valor se mantenga constante en el futuro. Ahora bien, ¿qué valor puede tener, pongamos por caso, un programa de código abierto que facilite la edición electrónica de medios de información local en euskera? En términos de mercado, su valor seguirá siendo bastante parecido a cero, pero en términos de servicio público su valor puede aumentar de manera exponencial en pocos meses. Hay ya algún ensayo que debería tomarse en consideración, realizado en Donostia por el grupo Bagera (<http://www.bagera.net/>), con la ayuda de Code&Syntax, una incipiente empresa vasca empeñada en estos menesteres (<http://www.codesyntax.com/>), que está también detrás del buscador Aurki (<http://www.aurki.com/>), basado a su vez en ODP (<http://dmoz.org/>), directorio de recursos de Internet realizado en código abierto por voluntarios y auspiciado por Netscape (grupo AOL-Time Warner)

En resumen, creo que la mejor manera de favorecer la presencia de contenidos en lengua vasca en Internet es dotarnos de medios y herramientas tecnológicas que hagan fácil la difusión de esos contenidos. Los organismos que tienen responsabilidades en la socialización del uso de las nuevas tecnologías, y especialmente las instituciones públicas, deben

SAKONTZE EGITASMOA

considerar seriamente la oportunidad de allanar el camino para que el potencial tecnológico que supone Internet como comunidad de conocimiento sea aprovechado en favor de la lengua y cultura vascas.

Más en concreto, juzgo que las instituciones públicas vascas deberían estrechar su relación con los pocos agentes capaces de crear instrumentos que faciliten la presencia del euskera en Internet, y asegurar la transferencia del uso de tales instrumentos a la comunidad.

4.5 Etorkinen integraziorako bideak:

Jorratu beharreko beste lan ildoetako bat etorriko diren etorkinei ahalik eta modurik errazenean euskal komunitatean integratzeko bideak bilatzearena da.

Alde batetik, horrek ahalegin berezi bat eskatzen du hezkuntza mailan, irakasleak horretarako prestatuz eta materialak egokituz, eta bestetik, maila orokorrago batean euskaldunon aldetik sentsibilizazio lan berezi bat eskatzen du, gu geu garenez kanpotik etorriko direnak euskararen aldeko jarrera izan dezaten interes gehien dutenak, jarrera ireki bat landuz eta lehen urratsa guk emanaz.

Aurtengo UEUko etorkinen inguruko aipatu ikastaroetan Txus Elorza irakasleak azaldurikoari jarraiki, etorkinen etorrera gehiago hartu behar genuke euskararentzat zabalpen aukera berri edo desberdin baterako aukera berri bezala, “mehatxu” bat gehiago bezala baino.

Azken finean, kanpotik datorrenarengandik jarrera positibo bat lortzea bada gure helburua, biderik eraginkorrena lehen urratsa eta ekimena euskaldunongandik sortzea da.

4.6 Lexiko aldetik sorkuntza bultzatu eta corpus-a malgutzea

Globalizazioa dela eta deskribatzen ari garen errealitate berri horretan funtzioen araberako hizkuntzen banaketa bat eta erabilpen berezitu bat aurreikusten ari gara gurea bezalako hizkuntza gutxiagotuen kasuan.

Halaber, gure hizkuntza funtzio berrietarako erabiliko dela aurreikusten dugu. Zentzu horretan, jorratu beharreko beste lan ildoetako bat lexiko sormenarena eta hizkuntza egiturak modu malgu batean ulertzearena da.

SAKONTZE EGITASMOA

Datozkigun garaietan zuzentasun gramatikalak eta erabilitako esamoldeen erabateko jatorrasun etimologikoak baino garrantzia gehiago izango du eraginkortasunak eta azkartasunak.

Zentzu honetan, euskararen erabilpena aipatzen ari garen esparru teknologiko berrietan bultzatu nahi den neurrian bide horretan sakondu behar genukeelakoan nago. “Txat”eatzeko balioko digun hizkera bat behar dugu, mobiletan idazteko, e-mailetarako, ingelesetik eta beste hizkuntza handietatik jasotako hitzak eta esamoldeak erraz eta modu eraginkorrean jasoko dituzten formak behar ditugu euskaraz ere, edota hankamotz ibiliko gara esparru berrietan eta hainbat hiztunek gaztelania edo beste hizkuntzak erabiliko dituzte. Zentzu honetan, eta ahal den neurrian hizkuntzaren berezko ezaugarriei eusten saiatu arren, puntu honetan malgutasuna eta sormena bultzatu behar genituzkeelakoan nago.

Bide honetatik badira orain arte bi ekimen interesgarri abian. Bata, azken bost-sei urteotan Asisko Urmeneta eta Kike Amonarriz lantzen ari direna (Mantxut), esamolde, hitz eta lokuzio berriak sortuz. Bestea, Jesus Rubiok *Euskararen garabideak* izenarekin kaleratu duen lana. Lan honetan egiten diren proposamen asko hasiera batean arrotzak suertatu arren, uste dut bide interesgarria zabaltzen duela eta komenigarria dela hausnarketa horri bide ematea.

Pasarteetako batean honela dio Rubiok:

*Aspektu esanguratsuenetan munduko kultura guztiek konbergituko dute, eta ongi dago hala izan dadila. Jakina tradizioak bere garrantzia baduela, baina besterengandik aurrerabide linguistiko, tekniko, edo hitz batean kultural esanguratsurik ikasteko izanez gero **ondo etorriak izan daitezela erreprodukzio-imitazio eraikigarriak, garakorrak, bizigarriak**, eta kulturaren edozein arlotan (independienteki), hala nola hizkuntzan, gastronomian, literaturgintzan, arkitekturan edo edozeinetan, bai-eta edozein gradutan ere (horrek, bistan denez, berdinduko gaitu, baina onerako). Beti geldituko dira berezitasunak, baina, berezitasun horiek ez dira sakonak izanen, azalekoak baizik, jai berezi eta lehiaketetan nabarmenduko diren berezitasun ikusgarri-folklorikoak adibidez (oso gozagarriak bestalde).*

4.7 Hizkuntza politikan errealitate berrian aintzat hartzeko zenbait orientabide, kontzeptu eta ideia

4.7.1 Bitartekaritza kulturala gainditzeko aukera historikoa

SAKONTZE EGITASMOA

Globalizazio fenomenoaren aurrean irekitzen diren aukeren artean bada bat azpimarratuko nukeena. Egoera berriak, hizkuntza “gutxiagotu” egiten duen baldintza garrantzitsuetako bat sahisteko aukera eskaintzen du: bitartekaritza kulturala gaitzeko aukera.

Txepetx-ek *Un futuro para nuestro pasado* lanean garbi adierazi bezala, kultura bat menpeko bihurtzen duen baldintzetako bat hau da: bitartekaritza. Alegia, urtetan (eta mendetan) euskaldunen hiztun komunitateak kanpoko beste komunitate guztiekiko harremanak beti frantsesaren edo gaztelaniaren bidez egin beharra. Egoera honek gure mundu ikuskera baldintzatzen du, etengabe euskara bi hizkuntza hauen menpeko bezala ikusiz.

Interneteko baliabideek aukera eskaintzen digute gaur egun euskaraz adierazteko zuzenean munduaren beste muturretik ingelesaren bidez edota ulertzen dugun beste edozein hizkuntzaren bidez jasotakoa. Menpekotasun sinboliko eta erreal hau gaitzeko gainerako hizkuntza komunitateekin “berdinetik berdinerara” aritzeko aukera, edo behintzat “komunikazio zuzena” praktikan jartzeko atea zabaltzen digu.

Aldaketa horren ondorioz, besteak beste, maileguak beti hizkuntza beretik jaso beharrean, hitz hori bere jatorrizko hizkuntzetik zuzenean euskara mailegatzeara edo egokitzea ugarituko da, euskararen ezaugarri propioak gehiago indartuz.

Praktika honen adibide polita dugu nire ustez, gaur egun, The balde aldizkaria.

4.7.2 Subsidiaritate printzipioa

Beste lan ildo interesgarri bat printzipio honen lanketa eta aplikaziotik etor daiteke. Albert Bastardas irakasleak ondorengo testuan azaltzen digu (Linguapax kongresuan aurkezturiko bere proposamenetik) eta funtsean ideia honetan jartzen du indarra: hizkuntza “lokal” batean egin daitekeen guztia ez dadila egin hizkuntza “globalago” batean, modu horretan bertako hizkuntzari funtzio batzuk ziurtatzeko helburuarekin. Interesgarria litzateke ere bide honetan sakontzea.

Hona hemen bere hitzetan:

Proposo, doncs, que l'exploració s'encamini cap a l'estudi de l'aplicació del principi dit de 'subsidiarietat' -present ja en l'actual nomenclatura europea- en el terreny de la comunicació lingüística. Podríem traduir

SAKONTZE EGITASMOA

aquest principi políticoadministratiu en un principi glotopolític que, de manera general, establís el criteri que 'tot allò que pugui fer una llengua 'local' no ho ha de fer una llengua més 'global'. És a dir, permetríem -i impulsariem- el coneixement efectiu i massiu d'altres llengües, però atorgant sempre que es pogués la preeminència funcional a la llengua de cada grup lingüístic històricament constituït. Les llengües dites 'estrangeres' serien utilitzades per als contactes exteriors -que cada vegada sovintejaran més- però les funcions locals quotidianes quedarien clarament assignades a les pròpies de cada grup lingüístic.

Aquesta reserva de funcions per a les llengües 'locals' de cada grup ha de ser clara i diàfana per tal que la poliglotització existent no se'n vagi cap a un abandonament del codi de menys amplitud comunicativa. Per això, juntament amb els principis de poliglotització i subsidiarietat cal introduir el de funcions 'específiques' o 'exclusives' per a les llengües 'locals', que són les que podrien quedar arraconades davant les llengües més grans. Així, clarament, hi hauria un nucli dur i important de funcions reservades que foren dutes a terme de manera habitual en la llengua del grup i no pas en cap altra. Aquestes funcions exclusives del codi grupal no haurien òbviament de ser limitades pas a les de la comunicació oral informal sinó que haurien d'abraçar el màxim possible de funcions formals i escrites a fi que les representacions i les valoracions dels individus no es veiessin esbiaixades cap a les altres llengües extragrups en presència. Es tractaria de bastir, com em va dir ja fa anys aquí a Barcelona en un altre congrés la professora Angéline Martel, una mena de 'diglòssia positiva'. Em fa pensar en la possibilitat d'èxit d'aquest tipus d'organització no solament casos, doncs, com els de les diglòssies de Ferguson abans esmentats o d'altres situacions multilingües africanes, sinó, per exemple, també situacions com la de Luxemburg. En aquest petit Estat europeu les llengües s'organitzen en base a un determinat tipus de distribució funcional que permet la poliglotització continuada dels individus i el clar manteniment de la llengua grupal .

Correlativament a la poliglotització, la subsidiarietat i les funcions exclusives, els poders públics a totes les escales haurien de vetllar per tal d'evitar una tendència que clarament pot produir-se, la dels usos abusius per part de les llengües més grans. Per a l'èxit d'aquest equilibri ecològic que hem de construir és fonamental que les grans llengües no vulguin ocupar més espais i funcions dels que els pertoquen, aprofitant-se de la poliglotització massiva dels individus. No poden envair

SAKONTZE EGITASMOA

abusivament els espais locals i deixar sense possibilitats, o amb molt minses, l'ús de les llengües grupals en àmbits molt importants per a la valoració de les llengües com poden ser els que aquests grans codis dominin. Algun tipus de regulació a escala general caldrà establir, basada en el principi de subsidiarietat i en el de respecte a la dignitat i estabilitat de tots els grups lingüístics que la història humana ha produït. Sense l'existència d'organismes a escala internacional que puguin tenir autoritat sobre aquests aspectes, pot ser molt difícil el manteniment d'un equilibri just i adequat. La responsabilitat dels organismes existents -i dels nous que hem de crear urgentment- a escala planetària és alta i decisiva.

Eta honaino globalizazioaren eskenatoki berri honetan hizkuntza gutxiagotuen ikuspegitik lan honetan egin dudan bidea. Prozesuaren ezaugarrietatik hasita, gure errealitatetik landu behar genituzekeen lan ildoetarako bidea egiten saiatu naiz, beti ere “informazio globalegiak” sahiesten saiatuz eta “proposamen konkretuetara” iristeko ahalegin batean.

Lasarte-Orian, 2002ko irailan

Pablo Suberbiola Unanue

5 Bibliografia:

BASTARDAS, Albert (1996): *Ecologia de les llengües, medi contactes i dinàmica sociolingüística*

BASTARDAS, Albert (2002): *Política lingüística mundial a l'era de la globalització: diversitat i intercomunicació des de la perspectiva de la 'complexitat' komunikazioa*, Linguapax kongresuan (Bartzelona, 2002)

BAT aldizkaria, 28. zenbakia (1998). Xabier Isasi eta Arantxa Iriarte. *Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa*. E.K.B

BERGER P. eta LUCKMANN T. (1997): *Modernismo, pluralismo y crisis de sentido. La orientación del hombre moderno*, Bartzelona: Paidós Estudio

DE SEBASTIAN, Luis: *Un mundo por hacer*

EGIA, Gotzon: *Las ventajas de ser pequeño: notas sobre la presencia de la lengua vasca en Internet komunikazioa*, Linguapax kongresuan (Bartzelona, 2002)

SEMENANJO, E. Nolue (2002): *Language policies and cultural identities komunikazioa*, Linguapax kongresuan (Bartzelona, 2002)

GRIN, François (1999): *Politica lingüística en la Suïssa multilingüe. Una visió de conjunt i evolució dels darrers anys*. Col·lecció Publicacions de l'Institut de Sociolingüística Catalana. Sèrie Documents de Treball, 10. Generalitat de Catalunya

INTERNETEN: (besteak beste)

- <http://www.uoc.edu/in3/atlantis> : ATLANTIS egitasmoa
- <http://www.linguapax.org/congres/indexcat.html>: kongresuko komunikazioak

JUARISTI, Patxi (2001): *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*, Bilbo: Euskaltzaindia, Bilbao Bizkaia Kutxa

JUARISTI, Patxi eta BARREÑA, Andoni (2001): *Hizkuntza gutxituan nazioarte mailan*. HIZNET graduondoa, 2. ikasgaia (2001/2002 ikasturtea)

JUNYENT, M.Carme (1998): *Contra la planificació*, Bartzelona: Empuries

MARTI, Joan (2002): *La diversitat lingüística en la societat de la informació Què són les llengües i quina relació tenen amb el concepte "cultura"?* komunikazioa, Linguapax kongresuan (Bartzelona, 2002)

MENDIZABAL, Antxon (1999): *La globalización. Perspectivas desde Euskal Herria*, Lizarra: Hiru S.L.

SAKONTZE EGITASMOA

NUÑEZ, Pamela (2002): *Cómo ayudan las nuevas tecnologías a proteger las lenguas minoritarias* komunikazioa, Linguapax kongresuan (Bartzelona, 2002)

RIDDERSTRALE, Jonas eta NORDSTRÖM, Kjell (2000): *Funky bussines. El talento mueve al capital*, Madrid: Pearson Educación

RUBIO, Jesus (2002): *Euskararen garabideak*, Irun: Alberdania

SAGARNA, Andoni (2001): *Euskara eta teknologia berriak*. HIZNET graduondoa, 10. ikasgaia (2001/2002 ikasturtea)

SANCHEZ CARRION, Jose M^a “Txepetx” (1991): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donostia. Egilearen argitalpena.

SIGUAN, Miquel (2002): *Llengües i cultures en un món globalitzat* artikulua in *Llengües globals, llengües locals* (Toni Molla –ed). Bromera

UEUko Udako Ikastaroak (2002): *Etorkinak eta euskara: hizkuntza integrazio bide* ikastaroa. Bertako hitzaldi eta materialetako edukiak erabili ditut, besteak beste:

- Inmigrazioa hemen eta orain: Agustin Unzurrunzaga. SOS Arrazakeriako kidea
- Inmigrazioa, kultura eta identitatea: ikuspegi antropologikoa: Txus Elorza. EHU-ko irakaslea